

Kultura Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2010 FORU DEKRETUA, marxoaren 30ekoa, 2010. urtean zehar Bizkaiko higiezin kultur ondarea berritzeko eraikuntza esku-hartzeak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen duena.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak (157. zenbakiko «EHAA», 1990eko abuztuaren 6koa) 102.2 artikuluan ezarri du foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultur ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta hondeaketetarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan emango diren laguntzak ezarriko dira, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Departamento de Cultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 50/2010, de 30 de marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones para la realización de Intervenciones Constructivas de Rehabilitación del Patrimonio Cultural Inmueble de Bizkaia que se lleven a cabo a lo largo del año 2010.

La Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 6 de agosto de 1990), en su artículo 102.2 establece que las Diputaciones Forales aprobarán anualmente los programas de ayuda para la conservación, mejora, restauración y excavación de bienes culturales calificados e inventariados, en los que se establecerán las ayudas a conceder, así como los criterios y condiciones para su adjudicación.

Esparru arau-emaile honen barruan, foru dekretu honek 2010ean zehar Bizkaiko higiezinaren kultur ondarea berritzeko erai-kuntza esku-hartzeetarako diru-laguntzak ematea arautzen du. Esku-hartze horiek ondarea zaharberritu, zaindu eta sendotzeko izango dira, eta laguntzak ematea publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioetan oinarritzen da.

Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen helburua Bizkaiko kultur ondare arkitektonikoa hobetzea denez, diru-laguntzen xedea interes kulturala duen ondare higiezinera hedatu da, base-ri, dorretxe, jauregi eta industriako ondare tipologia duenera. Araudi juridikoak babestu gabe egon arren, baloratu egin da eta Euskal Kultur Ondarearen Zentroko artxiboetan bildu da, monumentu edo monumentu-multzo bezala kalifikatu edo inbentariatzeko elementu interesgarri bezala.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 30eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DA:

1. artikulua.—*Xedea*

1. Foru Dekretu honen xedea da 2010ean zehar Bizkaiko higiezinaren kultur ondarea berritzeko erai-kuntza esku-hartzeetarako diru-laguntzak arautzea. Esku-hartze horiek ondarea zaharberritu, zaindu eta sendotzeko izango dira.

Foru dekretu honetan aipatutako diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira.

2. Honako hauek izan ahalko dira foru dekretu honetako diru-laguntzen onuradun: kalifikatuta edo inbentarioan jasota dauden ondasun higiezinetan egiten diren eraikuntzako esku-hartzeak. Baita honako hauek ere: kalifikatzeko edo inbentarioan jasotzeko espediente hasita dutenak, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritako eran.

3. Halaber, honako eraikuntza hauetarako esku-hartzeek ere jaso ahalko dituzte foru dekretu honetan azaltzen diren diru-laguntzak: Bizkaian dauden eta Eusko Jaurlaritzako Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan kalifikagarri edo inbentariagarri gisa ageri diren baserri, dorretxe eta jauregi eta industriako ondarea birgaitzeko eraikuntza esku-hartzeak, beharrezkoa izanik Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak horretarako emandako ziurtagiria.

4. Foru dekretu honen xedetik kanpo daude oinarritzko babes maila ezarria duten edo babesik ez duten elementuen (elementu ordezkagarriak) gaineko eraikuntza esku-hartzeak, elementu horiek, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, kalifikatutako edo kalifikazioa lortzeko espediente hasita duen monumentu multzo baten zati direnean.

5. Foru dekretu honen xedetik kanpo daude ere azken 10 ekitaldietan zehar 3 urtetan diru-laguntza jaso duten higiezinak.

2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen eraikuntza esku-hartzeak*

1. Foru dekretu honen arabera diru-laguntza jaso dezaketen eraikuntzako esku-hartzeak hurrengoak dira:

A) Zaharberrikuntza zientifikoa, eraikinaren edo instalazioaren ezaugarriak balioztatu eta artatzeko eraikuntza arloko esku-hartze moduan ulertuta. Horren bidez, eraikinaren barruan haren balio arkitektonikoei egokiak zaizkien erabilera edo erabilerak ahalbidetuko dira; horretarako, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan zaharberrikuntza zientifikorako ezarritako dauden obrak burutzeko aurrez ikusiko dira.

Dentro de este marco normativo el presente Decreto Foral regula la concesión de subvenciones para la realización de intervenciones constructivas de rehabilitación en el patrimonio cultural inmueble de Bizkaia a lo largo del año 2010 para su restauración, conservación, consolidación, sobre la base de los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

Dado que el fin que se pretende con las subvenciones reguladas en este Decreto Foral radica en la mejora del patrimonio cultural arquitectónico de Bizkaia, se amplía como objeto de las mismas al patrimonio inmueble de interés cultural con tipología de Caseríos, Casas-Torre, Palacios y Patrimonio Industrial, que no ha sido protegido por reglamentación jurídica, pero que ha sido valorado y ha quedado recogido en los archivos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco como elementos de interés para ser calificados o inventariados como monumentos o conjuntos monumentales.

Por ello, en virtud de lo expuesto, y vistos los artículos 17, 39k y 64.3 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de Febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por la que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral en reunión de 30 de marzo de 2010

SE DISPONE:

Artículo 1.—*Objeto*

1. Constituye el objeto del presente Decreto Foral la regulación de la concesión de subvenciones para la realización de intervenciones constructivas de rehabilitación del patrimonio cultural inmueble de Bizkaia, que se lleven a cabo a lo largo del año 2010, para su restauración, conservación y consolidación.

Las subvenciones a que se refiere este Decreto Foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva.

2. Podrán acogerse a las subvenciones objeto de este Decreto Foral las intervenciones constructivas de rehabilitación en los bienes inmuebles calificados o inventariados; o aquellos sobre los que se haya incoado expediente de calificación o inventario en los términos establecidos en la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

3. Quedarán incluidas, igualmente, en el objeto del presente decreto, las intervenciones constructivas de rehabilitación en Caseríos, Casas-Torre, Palacios y en Patrimonio Industrial, sitios en Bizkaia que consten en los archivos de la Dirección General de Cultura del Gobierno Vasco como calificables o inventariables, siendo preceptiva la certificación, al efecto concedida, por la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

4. Quedarán excluidos del objeto del presente Decreto Foral, las intervenciones constructivas sobre elementos a los que se les haya establecido un nivel de Protección Básica o Carentes de Protección (Elementos Sustituibles), que formen parte de un Conjunto Monumental calificado o sobre el que se haya incoado expediente de calificación en los términos establecidos en la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

5. Quedarán excluidos, asimismo, aquellos inmuebles que hayan sido objeto de subvención durante 3 años en los últimos 10 ejercicios.

Artículo 2.—*Intervenciones constructivas subvencionables*

1. Las intervenciones constructivas subvencionables con arreglo al presente Decreto Foral son las siguientes:

A) Restauración científica, entendida como intervención constructiva dirigida a la conservación y a la puesta en valor de las cualidades de la edificación o instalación, de forma que se posibilite en su interior un uso o usos adecuados a sus valores arquitectónicos previendo la realización de las obras establecidas para la Restauración Científica en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.

B) Iraunarazteko zaharberritzea. Helburua, eraikuntza zaintzea eta beraren funtzionaltasuna segurtatzea da. Horretarako, zenbait obra egiten dira, baina betiere eraikinaren elementu tipologiko, formal eta egiturazkoak errespetatzen direla. Eraikinaren barruan ezin da elementu horietarako egokia ez den erabilerarik egin, eta ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan zaharberritze zientifikorako ezarritako dauden obrak burutzea aurrez ikusten da.

C) Zaintzea, apaintzea eta sendotzea, hala nola:

a) Fatxaden itxura aldatzen duten konponketa-obra txikiak, bao edo zuloak aldatu edo beste batzuk irekitzeko, lehendik zegoen azalera erabilgarriaren banaketari eta fatxaden osaketa orokorrari eragiten ez diotenean.

b) Teilatua konpontzeko obrak; uhalak edo egiturazko beste elementu batzuk ere ordeztu ahal izango dira, hala badagokio. Baina estalduraren itxura eta materialak mantendu behar dira.

c) Eraikinaren edozein elementu iragazkaizteko obrak.

d) Fatxadako arotzeria, balkoien hegadak, begiratokiak eta eraikinaren sarbide orokorreko atea ordeztzeko obrak; kasu horietan, lehenagotik zegoenaren antzeko materiala eta diseinua erabili behar da, hobetu behar aldatzea aholkatzen duenean izan ezik.

e) Obrak eraikinaren barruko elementu komunetan, eraikinaren banaketan eragiten ez badute edo berau ez badute aldatzen.

f) Erantsi iraingarriak kentzeko edo kanpoko estalduraren tratamendu ez egokiei lotutako obrak, bai estaldurarako materialarena, bai pintura, kolore edo testurarena.

g) Egoera txarrean dauden egituraren elementuak ordeztzea eta berriak jartzea, nahiz eta elementuok beste material batekoak izan; halaber, egituraren osaketan eta zimenduaren alorreko beste jarduera batzuk, egonkortasuna eta segurtasuna handitzeko direnak.

2. Honako esku-hartze hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

a) Berreraikitzea, eraikuntzako esku-hartze bezala ulertuta, aurretiaz badagoen eta eraitsi egin den eraikuntza bat berriro egiteko.

b) Berrikuntza, barruko espazioen banaketan eta antolaketan funtsezko aldaketak egiten diren eraikuntzako esku-hartze bezala ulertuta, eta/edo egiturako elementuen kokapena, kota, material, forma eta dimentsioak eta/edo barruko eta kanpoko fatxaden aldaketak sakona.

c) Aurreko atalean jaso ez diren zaintze eta edertze lanak.

d) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren aldeko txostena jaso ez dutenak.

3. Diru-laguntza bakar-bakarrik 2010. urtean zehar benetan egiten den jarduerari emango zaio.

3. artikulua.—Onuradunak

1. Honako hauek dira foru dekretu honetan araututako diru-laguntzak eskura ditzaketenak: esku-hartzea egin nahi den higiezinaren jabegoa duten pertsona fisikoak (norbanakoak). Jabego hori Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliz egiaztatu beharko da.

Onuradun izan daitezkeen guztiek aurreikusita izan behar dute diru-laguntza jasotzeko esku-hartzea 2010ean egitea. Horretarako, zenbait alderdi egiaztatu beharko dituzte: badutela jarduera egiteko titulu juridiko egokia eta nahikoa, badutela Euskal Kultur Ondarearen 7/1990 Legeak aipatzen dituen aurretiazko baimena edo horren jakinarazpena, badituztela edo eskatuta dituztela esku-hartze horrek behar dituen beste baimenak eta lizentziak, eta diru-laguntzen arloko foru arauak oro har ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

2. Foru Dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezaketen esku-hartzeak Jabetza Horizontaleko Erregimenean sartutako ondasunetan egiten badira, eskabideak banaka izapidetuko ditu arti-

B) Restauración conservadora, dirigida a conservar la construcción y asegurar su funcionalidad por medio de una serie de obras que en cualquier caso han de respetar sus elementos tipológicos, formales y estructurales, no permitiéndose en su interior un uso o usos no adecuados con sus valores arquitectónicos, previendo la realización de las obras establecidas para la Restauración Conservadora en el decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.

C) Conservación y ornato y consolidación como:

a) Obras de reparación de fachada con pequeña modificación de su aspecto afectando a la modificación de los huecos, o a la apertura de nuevos huecos cuando no alteren la distribución preexistente de la superficie útil ni la composición general de sus fachadas.

b) Obras de reparación de la cubierta, pudiendo incluso ser sustituidas las correas u otros elementos estructurales, en su caso, pero debiendo mantener su forma y los materiales de cobertura.

c) Obras de impermeabilización de cualquier elemento del edificio.

d) Obras de sustitución de carpinterías de fachada, de voladizos de balcones, de miradores, cornisas y puertas de acceso general al edificio, debiendo en estos casos efectuarse la sustitución con material y diseño similar a los preexistentes, salvo que condicionantes de mejora de aquél aconsejen su modificación.

e) Obras en elementos comunes interiores del edificio que no afecten o modifiquen la distribución ni la estructura del edificio.

f) Obras para la eliminación de añadidos degradantes o a tratamientos indebidos del revestimiento exterior tanto de su material de revestimiento como de su pintura, color o textura, en su caso.

g) Sustitución de forma puntual de los elementos estructurales en malas condiciones por otros nuevos, aunque sean de distinto material, y aquellas otras operaciones en la composición de la estructura y cimentación que supongan un aumento de su estabilidad y seguridad.

2. No tendrán la consideración de intervención subvencionable las siguientes:

a) Reedificación, entendida como intervención constructiva dirigida a la nueva creación de una construcción anteriormente existente que previamente se derriba.

b) Reforma, entendida como intervención constructiva que conlleva la modificación sustancial de la distribución y organización de los espacios interiores y/o la modificación de la posición, cota, material y forma y dimensiones de los elementos estructurales y/o modificación profunda de las fachadas interiores y exteriores.

c) Conservación y ornato no contempladas en el apartado anterior.

d) Las que no hayan sido informadas favorablemente por el Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. La subvención vendrá referida exclusivamente a la intervención que efectivamente se realice a lo largo del año 2010.

Artículo 3.—Personas beneficiarias

1. Podrán ser sujetos de las subvenciones que regula el presente Decreto Foral las personas físicas (particulares), que ostenten la condición de propietario/a del inmueble sobre el que se pretende desarrollar la intervención, que deberá acreditarse por cualquiera de los medios de prueba admitidos en Derecho.

Todos las posibles personas beneficiarias deben haber previsto realizar en el año 2010 la intervención que fundamenta el otorgamiento de la subvención. Para ello, deberán acreditar tener título jurídico adecuado y suficiente para la realización de la intervención, haber obtenido la autorización previa o la comunicación referidas en la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, haber obtenido otras autorizaciones, licencias y permisos que dicha intervención requiera, y cumplir los requisitos que con carácter general establece la normativa foral en materia de subvenciones.

2. Si las intervenciones susceptibles de subvención, a tenor del presente Decreto Foral, recaen sobre bienes que están incluidos en el Régimen de Propiedad Horizontal, las solicitudes se tra-

kulu honetako 1. puntuari adierazitako edozeinek. Kasu horretan, eskabide bakoitzarekin batera esku-hartzea egiteko baimena ematen duen jabeen erkidegoaren akordioa aurkeztu beharko da. Kasu bakoitzean, eskatzaileak higiezinaren duen parte-hartze porzentajea adierazi beharko da.

3. Ezin dira onuradunak izan maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoetan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonak.

4. artikulua.—Eskabideak eta agiriak

1. Diru-laguntza eskabideak foru dekretu honen I. eranskin gisa ageri den inprimaki ofizialean aurkeztuko dira, behar bezala betetako II, III eta IV eranskinekin eta jarraian zehazten den agiriekin batera, hain zuzen ere, diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen dutenekin.

2. Pertsonari fisikoari buruzko agiriak:

Eskabideei honako agiri hauek erantsiko zaizkie:

a) Foru Dekretu honen I. eranskinean agertzen den eskabidea, interesdunak edo bere legezko ordezkariak sinatuta.

b) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

c) Interesdunak legezko edo borondatezko ordezkariaren bitartez jarduten duenean, ordezkari frogatu beharko du zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliz.

3. Esku-hartzeari buruzko agiriak:

3.1. Diru-laguntzaren xede den esku-hartzea dagokion higiezinaren jabetza-titulua kopia, edo jabearen baimena esku-hartzea gauzatzeko. Eskatzailea ondasunaren jabe bada, gainerako jabeek baimena eman dutela edo esku-hartzearekin eta partaidetzaren ehunekoarekin ere bat datozela adierazten duen agiria aurkeztu beharko du.

Higiezinaren jabetza egiaztatzeko titulua kopiaren ordez, jabetza-erregistroaren ziurtagiria edo ohar soila, 2010eko ekitaldiaren barruan emana, aurkeztu ahal izango da.

3.2. Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak emandako ziurtagiria, foru dekretu honen 1.3 artikuluan aipatzen diren higiezin kalifikagarriak eta inbentariagarriak direnean.

3.3. Esku-hartzea egiteko eskuespen, lizentzia eta baimenak eskuratu dituela egiaztatzeko agiria. Foru dekretu honen 1.3 artikuluan aipatzen diren higiezin inbentariagarri eta kalifikagarrien kasuan, Kultura Ondarearen Zerbitzuko aldeko txostena.

3.4. Birgaitzeko eraikuntza esku-hartzearen burutzapen proiektua. Horrek higiezinaren egoeraren deskripzioa eta egin beharreko lanen memoria (materialak eta kalitatea jasoko ditu), neurketen egoera, eta aurrekontu xeheak izan behar ditu. Diru-laguntza jaso duen esku-hartzea burutzeko gehiezeko epeak beren beregi adierazi beharko dira.

Proiektuaren aurrekontua ez denean osorik eskatzen 2010. urterako eta ez duenean jasotzen faseka burutuko dela, agiri tekniko osagarriak aurkeztuko dira: 2010eko abenduaren 31ra arte burutuko den proiektu zatia eta aurrekontuko zein partida edo unitate erabiliko diren zehatz azaltzeko agiriak.

Halaber, aurkeztutako proiektuaren barruan, diru-laguntza jaso dezaketen obrez gain, bestelakoak ere sartzen direnean, agiri tekniko osagarriak aurkeztuko dira ere, diru-laguntzaren xede den proiektuaren zatia eta horri dagozkion aurrekontuko partidak edo unitateak zehaztuta.

Proiektua eta agiri tekniko osagarriak eskumena duen teknikariak sinatu behar ditu eta arlo horri dagokion elkargo profesionalak zigilatu.

3.5. Higiezinari ezarri beharreko arautegiaren arabera proiekturik behar ez duten esku-hartzeetan eta burutzeko aurrekontua 30.000 euro baino handiagoa ez bada, eta aldamiarik ez bada jarri behar, dokumentazio tekniko sinplifikatu ahal izango da, baina, gutxienez, honako hauek aurkeztuko dira:

- Egin beharreko obraren hedadura jasotzen duen memoria, kalitateak eta materialak zehaztuta.
- Aurrekontua eta neurketak, partidak banakatuta.
- Egin beharreko obra azaltzen duen krokisa, neurri zehatzak eta benetakoak adierazita.

mitarán individualmente por cualquiera de los sujetos recogidos en el punto 1 del presente artículo. En este supuesto, cada una de las solicitudes deberá ir acompañada del acuerdo de la comunidad de propietarios que autorice la intervención, debiendo indicarse en cada caso, el porcentaje de participación del/la solicitante en el inmueble.

3. No podrán ser beneficiarias las personas en las cuales concurra alguna de las circunstancias descritas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo.

Artículo 4.—Solicitudes y documentación

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I del presente Decreto Foral, junto con los anexos II, III y IV cumplimentados y la documentación que a continuación se señala y que es acreditativa del cumplimiento de los requisitos necesarios para ser beneficiario de la subvención.

2. Documentación relativa a la persona física:

Las solicitudes se acompañarán de la siguiente documentación:

a) La solicitud que figura en el anexo I del presente Decreto Foral firmada por el/la interesado/a o quien legalmente le represente.

b) Copia del Documento Nacional de Identidad del/la solicitante.

c) Cuando el/la interesado/a actúe por medio de representante, legal o voluntario, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en Derecho.

3. Documentación relativa a la intervención:

3.1. Copia del título de propiedad del inmueble sobre el que recae la intervención objeto de subvención, o autorización del/a titular para llevar a cabo la intervención. Si el/la solicitante es titular en régimen de copropiedad, acompañará la autorización o conformidad con la intervención de los/as demás copropietarios/as y porcentaje de la respectiva participación.

La copia del título de propiedad del inmueble podrá ser sustituida por la certificación o nota simple del Registro de la Propiedad emitido dentro del ejercicio 2010.

3.2. Certificación expedida al efecto por la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, en el caso de inmuebles calificables e inventariables a que se hace referencia en el artículo 1.3 de este Decreto Foral.

3.3. Acreditación de haber obtenido las autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención. En el caso de inmuebles inventariables y calificables a que se hace referencia en el artículo 1.3 de este Decreto Foral informe favorable del Servicio de Patrimonio Cultural.

3.4. Proyecto de ejecución de la intervención constructiva de rehabilitación, conteniendo la descripción del estado del inmueble y la memoria detallada de las obras a realizar expresando calidades y materiales, el estado de mediciones y presupuesto suficientemente detallado y consignación de forma expresa de los plazos máximos de ejecución de la intervención subvencionada.

En los casos que durante el año 2010 no se vaya a solicitar la totalidad del presupuesto del proyecto y este no contemple la ejecución por fases se complementará con documentación técnica en la que especifique la parte del proyecto y las partidas o unidades del presupuesto a ejecutar hasta el 31 de diciembre del año 2010.

Asimismo, en los casos en que el proyecto presentado contemple obras más allá de las intervenciones subvencionables, se completará con documentación técnica en la que se especifique la parte del proyecto y las partidas o unidades del presupuesto, por las que se solicite la subvención.

El proyecto y la documentación técnica complementaria deberán estar firmados por Técnico competente y visados por el Colegio Profesional que corresponda.

3.5. Para aquellas intervenciones que según la normativa que sea aplicable al inmueble no requieran proyecto, y cuando el presupuesto de ejecución no sobrepase de los 30.000 euros y no sea necesaria la instalación de andamios, la documentación técnica podrá simplificarse, presentándose como mínimo:

- Memoria indicando el alcance de la obra a realizar, especificando calidades y materiales.
- Presupuesto y mediciones con desglose de partidas.
- Croquis que haga comprensiva la obra a realizar con indicación de las medidas exactas y reales.

Arlo horretan eskumena duen profesionalak ez du adierazitako dokumentazio teknikoa sinatu beharrik, eta, horren ondorioz, ez da ikus-onespenik eskatuko.

3.6. Proiektuan jaso gabe dauden eta esku-hartzeari loturiko beste gastu batzuen justifikazioa eta azalpena.

Honako hauen batuketa izango da gastuen aurrekontu osoa: onartutako gauzatze proiektuan (edo aurkeztu diren agiri teknikoetan) jasotako betearazte aurrekontua eta esku-hartzeari zuzenean loturiko beste gastuak. Gastu horiek izango dira honako jarduera hauenak: berritu beharreko higiezinaren egoerari edo patologiei buruzko ikerlanak, analisiak eta entseguak, zuzendaritza profesionala, pieza bereziak garraiatzea, eta horien antzeko beste gastu batzuk, beti BEZik gabe eta 2010. urtean zehar eginikoak badira.

4. Foru dekretu honetako 6. artikuluan adierazitako balorazio irizpideak justifikatzeko gainerako agiriak.

5. Helburu bererako beste diru-laguntza eskabide batzuen zerrenda eta bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, halaxe jakinarazten duen adierazpena. Zehazki adierazi beharko dira beste edozein erakunderi —publikoa zein pribatua— helburu berbererako eskatutako diru-laguntzak, eta eskabide horren egoera (ukatua, erantzunaren zain, emana) eta zenbatekoa xehetasunez aditzera eman.

5. artikulua.—*Agiriak aurkeztea eta horretarako epeak*

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondare Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Bilboko Maria Diaz de Haro kaleko 11. zenbakian; astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak, xedatutako moduan.

2. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

3. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute foru dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat, orduan interesdunari agindeia egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

4. Beharrezkotzat jotzen denean, Kultura Ondarearen Zerbitzuak aurkeztutako eskabideak ebazteko egoki derituz dokumentazio osagarria eskatu ahal izango da eskatzaileei. Agindeia jaso duen eskatzaileak ez baditu agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten, eskatutakoan atzera egin duela ulertuko da eta, horren gaineko ebazpena emanda, artxibatu egingo da eskabidea.

6. artikulua.—*Eskabidea ebaluatu eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak*

1. Foru dekretu honek azaltzen dituen diru-laguntzak norgehiagoka sistema bidez emango direnez, lehentasun-ordena ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta horien haztapena hartuko ditu kontuan, gehieneko 100 punturen gainean honela ezarritako direnak:

a) Kultur ondarea zaintzeko behararen ikuspegitik, eraikuntza esku-hartzeak duen helburua eta horren beharra. Horregatik, 35 puntu gehienez ere.

b) Higiezinak kulturaren ikuspegitik duen balio edo interesa. Horregatik, 30 puntu gehienez ere.

c) Proiektuan aurkeztutako konponbideen kalitatea eta horiek kultur ondarea zabaltzen duten eragina. Horregatik, 20 puntu gehienez ere.

d) Berriztatu behar den higiezinaren tipologia. Horregatik, 10 puntu gehienez ere.

e) Esku-hartzearen premia maila, hau da, atzeratzeko aukeraren arabera, beti ere kultur ondasuna behar bezala artatzen dela bermatzeko helburupean, kasu guztietan. Horregatik, 5 puntu gehienez ere.

2. Epaimahaiaren iritziz gutxienez ere 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

La documentación técnica indicada podrá no ser suscrita por el/la facultativo/a competente y en consecuencia no se exigirá el requisito del visado.

3.6. Justificación y concepto de otros gastos relacionados con la intervención y no contemplados en el proyecto.

Tendrá consideración de presupuesto global de gastos la suma del presupuesto de ejecución material consignado en el proyecto de ejecución visado o documentación técnica aportada y otros gastos relacionados directamente con la intervención, como, estudios, análisis y ensayos sobre el estado o patologías del inmueble a rehabilitar, dirección facultativa, transporte de piezas especiales y otros de análoga naturaleza, siempre sin I.V.A. y cuando se realicen durante el año 2010.

4. Demás documentación que justifique los criterios de valoración señalados en el artículo 6 de este Decreto Foral.

5. Relación de otras solicitudes de subvención para el mismo objeto o, en el caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, declaración indicando este extremo. Habrá de detallarse toda subvención instada a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, detallándose el estado de la misma (denegada, pendiente de contestación, concedida) y su importe.

Artículo 5.—*Entrega de documentación y plazos*

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia sito en la calle María Díaz de Haro número 11 de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por la Ley 4/99 de 13 de enero.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente de la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

4. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el solicitante requerido no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

Artículo 6.—*Criterios de valoración y determinación de la cuantía de subvención*

1. Al objeto establecer un orden de prelación, dado que las subvenciones a que se refiere este Decreto Foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva, el Tribunal Calificador aplicará los siguientes criterios y su ponderación, que sobre un máximo de 100 puntos, quedan establecidos como sigue:

a) Por el objetivo y necesidad de la intervención constructiva desde el punto de vista de Conservación del Patrimonio Cultural. Se valorará hasta 35 puntos.

b) Por el valor o interés del inmueble desde el punto de vista cultural. Se valorará hasta 30 puntos.

c) Por calidad del proyecto en lo referente a las soluciones aportadas y su repercusión en la difusión del patrimonio cultural. Se valorará hasta 20 puntos.

d) Por la tipología del inmueble a rehabilitar. Se valorará hasta 10 puntos.

e) Por el grado de urgencia de la intervención, es decir, la posibilidad o no de retardarla, con el objetivo común de que quede garantizada, en todos los casos, una correcta conservación del bien cultural. Se valorará hasta 5 puntos.

2. Las propuestas que no alcancen una puntuación de 50 puntos, a juicio del Tribunal Calificador, serán desestimadas.

3. Edozelan ere, foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzek foru dekretu honetan ezarritako dagozkien aurrekontuko diru-izendapenak izango dituzte muga bezala. Horren ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzea; horrez gain, beharrezkoa izango da eskabideari erantzun ahal izatea, aurrekontuetan dauden diru hornidurak kontuan izanik.

4. Proiektua eta gastuen aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketean jardueri dagozkiela egiaztatu ondoren edo, behar izanez gero, gaindik konputaezinak kendu ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, lortutako puntuen arabera, eta ezingo du inoiz honako kopuru hauetako txikiena gainditu (BEZA kenduta):

- Aurkeztutako proiektu osoaren aurrekontuaren 100eko 50.
- Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa; hala ere, beste diru-laguntza batzuk jasoz gero, berariaz ezarritakoa aplikatuko da.
- Ehun mila euro (100.000 euro) berritutako higiezin bakoitzeko.

5. Diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du, inoiz, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntzekin batera, onuradunak garatu beharreko esku-hartzearen kostuaren kopurua gainditu.

6. Eskabideen arteko lehentasun-hurrenkerak ezarri ondoren, proportzionalki eta ezarritako mugak errespetatuta, aurreko eskatzaileek gaindikina badute edo uko egiten badute, horien onurak ondorengo eskatzaileentzat izan ahalko dira.

7. artikulua.—*Aholkularitza*

Foru Dekretu hau irakurtzean nahiz honen helburuko diren proiektuak direla eta, sortutako zalantza edo aholku guztiak argitzeko laguntza teknikoa edo beharrezko aholkuak eskainiko ditu Kulturako Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak.

8. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea*

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, hurrengo kideok osatutako epaimahai kalifikatzailea eratuko da:

- Epaimahaiburua titularra:*
— Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.

Ordezko epaimahaiburua:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.

- Epaimahaikide titularrak:*
— Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko burua.
— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko teknikari bat, foru aginduz izendatua.

Ordezko epaimahaikideak:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua.
— Esku-hartze Arkitektonikoaren eta Errestaurazioaren Ataleko teknikari bat, foru aginduz izendatua.
— Kultura Ondarearen Zerbitzuko arkeologo bat, foru aginduz izendatua.

- Idazkaria.*
— Kulturako Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa emateko. Pertsona hori foru aginduz izendatuko da.

Ordezko idazkaria:

— Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikari bat, foru agindu bidez izendatua.

2. Diru-laguntzak adjudikatze irizpideak kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

3. En todo caso, las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral tendrán como límite la correspondiente consignación presupuestaria establecida al efecto en este Decreto Foral. En consecuencia, no será suficiente que el solicitante reúna las condiciones y requisitos exigidos, sino que se precisará, además, que su solicitud pueda ser atendida teniendo en cuenta la dotación presupuestaria.

4. Una vez comprobado que el proyecto y el presupuesto de gastos corresponden efectivamente a intervenciones susceptibles de subvención, o realizada en su caso la depuración de los excesos no computables, se procederá a determinar la cuantía de la subvención en proporción a la puntuación obtenida, que, I.V.A. excluido, no podrá superar la menor de las cantidades siguientes:

- El 50 por 100 del presupuesto de gastos global.
- La cuantía de la subvención solicitada, sin perjuicio de lo previsto para el supuesto de concurrencia con otras subvenciones.
- Cien mil euros (100.000 euros) por inmueble a rehabilitar.

5. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la intervención a desarrollar por la persona beneficiaria.

6. Una vez establecido el orden de prelación entre las distintas solicitudes, proporcionalmente y respetando los límites establecidos los excesos o renunciaciones de los solicitantes precedentes podrán redundar en los siguientes.

Artículo 7.—*Asesoramiento*

El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Cultura prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta planteada referida tanto a la interpretación del presente decreto como a los proyectos que constituyen su objeto.

Artículo 8.—*Tribunal calificador*

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un Tribunal calificador integrado por los siguientes miembros:

- Presidente titular:*
— El director general de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Presidenta suplente:

— La directora general de Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Vocales titulares:*
— El jefe del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.
